



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua
Servicio de Viticultura y Enología

TXOSTENA: MAHASTIAREN EGOERA ARABAKO ERRIOXAN, 2015/07/17

Aste honetan zehar, beroak jarraitu egin du oso gogor jotzen eta, antza denez, horrela jarraituko du gutxienez eguraldiaren pronostiko fidagarria dagoen egunetan.

Mahastiek beroa jasaten dute neguan bildutako ur erreserbari esker eta, dirudienez, egoera onean irauten dute, landaketa berrienak izan ezik, gero eta gehiago pairatzen baitute agorraldia. Mahastien osasuna, oro har, bikaina izaten jarraitzen du.

Fenologia aldetik, mahastien egoera mahats mordo itxiari dagokion "J" egoera da, mahasti gehien-gehienetan, nahiz eta alderik goiztiarrenetan, Arabako Errioxaren ekialdean, mahatsak kolorea aldatzen hasten ari diren (egoera: M1, kolore-aldaketaren hasiera), garapen onarekin eta osasun egoera bikainarekin. Urte arrunt batekin alderaturik, 10 eta 13 egun arteko aurrerapena daramagu.

Izurrite eta gaitzei dagokienez, nabarmendu beharrekoa da:

Oidioa edo zurina: fokuren bat baina ondorio handirik gabe. Tratatzen jarraitu izan da. Jokabidea soroak babesturik mantentzea da, ekaitzik datorren kasurako. Kontuz ibili arriskurik gutxien duten aldeetan (iparraldea eta goizaldeko eguzkia) egin behar diren ostokentzeekin, mordoetan erredurak ekiditeko.

Gorrina: Kolore-aldaketatik aurrera arriskuek jada ez diote mordoari eragiten. Hala ere, komeni da mahastiak babesturik edukitzea, ekaitzik edo horren abisurik badago.

Botritis: kolore-aldaketaren hasiera, orain gauden edo datorren astean egongo garen egoera alegia, botritisaren kontrako tratamendua egiteko momenturik eraginkorra da Arabako Errioxa guztian. Joan den kanpaina gogoan daukagu guztiok. Prebentzioa funtsezkoa da.

Hosto sitsa: Bigarren belaunaldiaren hegada osoa. Ez dago harrapaketa asko, baina adi egon behar dugu tranpen datuei AFaren web orrian. Lehentasunez, sexu nahasketa bidezko borroka teknikak erabili. Tratamenduen kasuan, Arabako Errioxarako eraginkorrenak uztailearen 20tik 27ra bitartean egin beharko lirake.

Armiarma horia: Ikusi dira hosto gorritzearen zenbait sintoma tempranilloaren oinaldeko hostoetan, eta, beraz, tratamendua eman beharko da kasuren batean, hosto galtzea eta ondoriozko kalteak eragozteko. Sintomarik ikusi ezean, ez tratatu.

Eltxo berdea. ikusi dira finkaren batean erasoaren sintomak, orria idortzen ertzetatik hasita. Ez da gomendatzen tratatzea non eta sintomak ez diren agerian edo ez den tratamenduaren atalasea iritsi (2 intsektu orriko). Mahats mordoaren sitsaren kontrako tratamendua emanaz gero, hautatu eltxoaren kontra ere eraginkorrak diren produktuak.

Laburbildurik, gaur egun, mahastiak mahats ugari du, osasun egoera onean dago, eta oso aurreraturik urte arrunt batekin alderatuz gero.

Kontseilu Arautzaileak gaur mahats bilketako arauen proposamen bat onartu du, babestutako mahats kopurua % 7 handitzen duena, haren kolorea edozein dela ere (6.955 kilo mahats beltz hektareako, eta 9.630 mahats zurirako), % 6 gehiago upeltegian sartzeaz gainera. Hala ere, azken soberakin hau ezin izango da inoiz ere "Errioxa" zirkuituaren barruan sartu. Muga horiek askogatik ere gainditzeko mahats lagina badago ere, kantitatea eta kalitatea mahats bilketara arte gertatzen denaren arabera izango dira.

Adeitasunez,

Guardian, 2015eko uztailaren 17an